

## SARBIDEAK

Ilunberriko udal barrutian dago arroila. Iruñetik heldurik, errepidetxo bat hasten da herriaren sarreran, eta, 2 km ibili ondoren, arroila bisitatzeko jarri den ordaindu beharreko aparkalekuraino heltzen da. Inguruan komunak, ura eta zakarrontziak aurkituko ditugu. Oporraldietan eta asteburuetan zaindari bat dago, eta udan turismo informaziorako puntu bat jartzen da. Interpretazio zentrorra joateko, aparkaleku bat dago herrian (seinaleztatua).

## BISITARAKO IBILALDIAK

### Ibilaldi laburra



Arroilaren barnealdea zeharkatzen du, trenbidearen bide ordokian barna. Ohikoena da, ez du zailtasunik eta itsuendako eta/edo mugikortasun urriko pertsonendako egokiturik dago. Aparkalekutik hasirik, arroila zeharkatzen du, eta paraleloa da ibaiarekiko. Sarrerako zubia (167 m) eta irteerakoa (206 m) iraganik, *Puente del Diablo* zubiraino heltzen da, eta handik itzuliko gara, bide berbera erabiliz. Luzera (joan-etorria), guztira: 2,6 km. Denbora, gutxi gorabehera: ordubeta.

### Ibilaldi luzea




Lehen zatian, zirkuituak ondoko mendi hegaletan barna inguratzen du arroila, eta, azken tartean, zintzurra zeharkatzen du aparkalekura itzultzeko. Luzeagoa da (5,5 km eta 175 metroko desnibela), baina ingurua eta arroila bera bisitatzeko aukera ematen du. Bi noranzkoetan ongi seinaleztaturik dago ibilbidea; marka berdeak eta zuriak ditu, baita zurezko zutoinak ere. Lehen tunelera heldu baino lehen hasten da zidorra. Denbora, gutxi gorabehera: 2 h.

### Ibilaldi ornitologikoa



Bi ibilaldiak, Interpretazio Zentroan eta hondakindegiko behatokian egiten den bisitarekin batera, ibilbide interesgarriak dira hegaztiei behatzea gogoko duten zaleendako. Horri buruzko liburuxka bat dago eskura.



## BISITARIAREN JOKABIDE EGOKIAK:

- Eraman zaborra harrera eremuko edukiontzietara (aparkalekua).
- Debekaturik dago arroilaren barnealdean ibilgailu motordunetan ibiltzea.
- Errespetatu fauna, landareta eta, oro har, ingurune osoa.
- Ez eragozpenik sortu hegaztiei, ez egin oihurik, ezta zalapartarik ere.
- Ibilgailuetan ez utzi baliozko objekturik begien bistan.
- Harriak erortzeko arriskua dago; kontu handiz ibili.
- Ezin da ez kanpatu, ez surik egin. Guztion hobe beharrez, ez piztu surik batera, ezta aisialdirako gunean ere.
- Mendi-guardak daude arroilan. Egin kasu haien jarraibideei.

